

Fontes

Linguae Vasconum

50 urte. Ekarpen berriak
euskararen ikerketari

Nuevas aportaciones al
estudio de la lengua vasca

Berridazketak Sarrionandia-
ren poesian eta Saizarbitoria-
ren *Egunero hasten delako* no-
belan: hurbilpen genetiko bat

MIKEL AYERBE SUDUPE

Argitaratzaileak / Editores

Ekaitz Santazilia

Dorota Krajewska

Eneko Zuloaga

Borja Ariztimuño



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Berridazketak Sarrionandiaren poesian eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* nobelan: hurbilpen genetiko bat

Rewriting in Sarrionandia's poetry and Saizarbitoria's novel *Egunero hasten delako*: a genetic approach

MIKEL AYERBE SUDUPE

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

mikel.ayerbe@ehu.eus

JASOA: 2019/07/26 | BEHIN-BEHINEAN ONARTUA: 2019/08/01 | BEHIN BETIKO ONARTUA: 2019/11/17

Argitalpen hau Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan (MHLI) IT1047-16 ikerketa-taldearen US17/10 (UPV/EHU) eta FFI2017-84342-P (MINECO) ikerketa-proiektuen parte da.

LABURPENA

Kritika genetikoaren ikergaia testuaren bilakaera da, eta oinarritzko helburua idazketa-prozesuaren berreraiketa azaleratzea. Artikulu honetan, kritika genetikoari dagozkion oinarritzko hainbat kontzeptu azalduko dira; hala nola, aurre-testu, eskuizkribu moderno, dossier genetiko edota idazketa-moduen banaketa. Jarraian, Sarrionandiaren poesia-berridazketen eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* nobelako zenbait elementuren azterketa genetikoa gauzatuko da. Ondorio nagusia eskuizkribuen azterketaren garrantzia izango da, zirriborroetan gauzatzen delako bereziki idazketaren mugimendua, erabaki poetikoen hautua eta, azken batean, testu-genesia.

ABSTRACT

The main objective of genetic criticism is to analyse and reconstruct the writing process. This paper will give an overview of some basic concepts of genetic criticism such as the pre-text, modern manuscripts, genetic dossier and writing methods. Thereafter, it will offer a genetic approach to rewriting in Sarrionandia's poetry and in certain specific aspects of Saizarbitoria's novel *Egunero hasten delako*. The main conclusion will lead us to emphasize the study of drafts, since this is where the movement of writing, its development and, ultimately, the genesis of the text takes place.

Gako-hitzak: kritika genetikoa; Sarrionandia; Saizarbitoria; *Egunero hasten delako*.

Keywords: genetic criticism; Sarrionandia; Saizarbitoria; *Egunero hasten delako*.

1. Kritika genetikoa

Stefan Zweigek (2001, 212. or.) adierazi bezala, «no se sabe lo bastante de un artista conociendo sólo su obra terminada, y secundo las palabras de Goethe cuando decía que para entender las grandes creaciones hay que verlas no sólo en su conclusión, sino también observarlas en su génesis». Horixe da kritika genetikoaren helburua, bukatutako obra baten ikerketari baino obraren sorkuntza-prozesu osoari erreparatzea. 1979an aurrenekoz *kritika genetikoa* izendapena ezarri zuen Louis Hayk zehaztu bezala, ikerketa-eremu eraberritzailea litzateke: «un nouveau champ de recherche –celui des études de genèse, qui traitent de la production des écrits et singulièrement des textes littéraires» (Hay, 1979, 227. or.). Ikuspegi horren atzean datzan auzia zera da; literatur obra baten behin betiko testua lanketa mailakatu baten ondorioa dela, idazketa-aldi jarraitu edota txandakatuaren emaitza, alegia. Denboran zehar garatzen den idazketa-prozesu horren zantzuak ikertzea da kritika genetikoaren xede nagusia, idazketa-aldian landuriko lekukotasun idatzietako aztarnak ikertuz. Ikuspuntu-aldaketa bat da, azken batean, proposatzen dena: egileari baino gehiago idazleari eta idazten duenari erreparatzea, idazlanari baino gehiago idazketari, egiturari baino gehiago egituratze-prozesuari, eta finean, obrari baino gehiago genesiari edo ernalketari:

El objetivo de análisis de la crítica genética son los documentos escritos –por lo general, y preferiblemente, manuscritos– que, agrupados en conjuntos coherentes, constituyen la huella visible de un proceso creativo. Se la suele definir como el estudio de la prehistoria de los textos literarios, es decir, el desciframiento, análisis e interpretación de los papeles de trabajo de un autor, de los materiales que preceden a la publicación de una obra presuntamente «terminada» (Lois, 2005, 56. or.).

Kritika genetikoak, beraz, behin betikotzat hartzen den testua kolokan jarri eta testu horren aurrekariak aztertzea du helburu, idazketaren garapen eta bilakaera nola gauzatu den lekukotza idatzien bidez azaltzeko asmoarekin. Izan ere, idazketa-prozesuetako lekukotasunak aztertzeak eta bilakaera testuala zedarritu ahal izateak obra literarioen interpretaziorako argi eta bide berriak proposatzea dakar.

2. Oinarrizko zenbait kontzeptu

2.1. Aurre-testua

Kritika genetikoa terminoa 1979an ezarri arren, ikerketa-eremuaren aurrekari gisa 1972an Bellemin-Nöelek *aurre-testu* kontzeptu fundatzailea zedarritu zuen *Le Texte et l'avant-texte* lanean. Aurre-testua kritika genetikoa gauzatzeko ezinbesteko kategoria deskriptiboa bihurtu zen ordudanik. Aurre-testuek ez dute testu izaerarik, «testuaren matrizeak» (Ferrer, 1998, 28. or.) dira gehienez ere, behin betiko testuak bere baitan bildu eta egonkortzen dituen artean behintzat. Beraz, aurre-testua litzateke «L'ensemble constitué par les brouillons, les manuscrits, les épreuves, les 'variantes', vu sous l'angle de ce qui précède matériellement un ouvrage quand celui-ci est traité comme un texte, et qui peut faire système avec lui» (Bellemin-Nöel, 1972, 15. or.).

Edonola ere, kritika genetikoaren sorrerari egotzi zaizkion kritiken artean, filologiarekin eta testu-kritikarekin dituen antzekotasunek eragindakoa izan da nabarmena. Lebraveren 1992ko «La critique génétique: une discipline nouvelle ou un avatar moderne de la philologie?» artikuluan egileak ondorioztatzen du, kritika genetikoaren eta filologiaren lan-tresnak antzekoak izanik ere (eskuizkribuak aztertzeko behaketa- eta ikerketa-metodologia sakon eta zehatza), helburuan datzala bi ikerketa lerroen desberdintasun nagusia. Filologiak, oro har, testua ezartzea du xede eta, aldiz, kritika genetikoak testua bere baitan itxi beharrean, irakurketa- eta interpretazio-aukerak ireki nahi ditu aurre-testuak ikertuz.

2.2. Eskuizkribu modernoa

Idazketa-urratsak dokumentatu eta interpretatu ahal izateko denboran zehar garatzen eta testu bihurtzen joan diren idazkiak ditu ikergai kritika genetikoak. Idazki horiek eskuizkribuak dira, *eskuizkribu modernoak*, *eskuizkribu* kontzeptuak ere bilakaera historikoa jasan duelako eta *eskuizkribu moderno* nozioa ez baita sinplea. *Nozio hibrido* izendatzen du Biasik (2011, 12. or.), ordura arte ez zuen eskuizkribuaren estatus eraberritu bati erreferentzia eginaz, hots, publiko ez diren eskuizkribuak, egilearen eremu pribatuari dagozkionak, bihurtzen baitira ikergai. Gainera, errealitate enpiriko baten mugarri historikoa ere markatzen du. Horrela, liburutegietan edota bestelako instituzio zein artxiboetan aurki ditzakegun dokumentu idatziak honela sailka ditzakegu, euren izaera historikoa zein tipologikoa aintzat hartuta: «Écrits publics manuscrits: ce sont les manuscrits anciens et médiévaux; écrits publics non manuscrits: ce sont les imprimés; écrits non publics manuscrits: ce sont les manuscrits modernes» (Lebrave, 1992, 38. or.).

Halere, ordenagailuaren asmakuntzaren aurretik, eskuizkribuen sorkuntzak eta idazketa-moduek izan dute aldaketarik. Testu-prozesadore gisa, ordenagailuaren aitzindaritzat har daitekeen idazmakina da horren lekuko, eskuizkribuak sortu beharrean, *tapuskritoak* edo *daktilografikoak* sortzen baititu (ondoren ordenagailuak egin bezalatsu). Aurrez aipatutiko eskuizkribu klasiko, moderno eta liburu inprimatuei egotzitako ezaugarriak direla eta, Lebravek aurrez aipaturiko zerrenda osatu eta tapuskrito zein lekukotza daktilografikoak «écrits non publics non manuscrits» (Lebrave, 1992, 38. or.)

gisa deskribatzen ditu. Izan ere, orrialde daktilografikoak zein tapuskritoak obra baten genesiaren idatzizko lekukotasunak dira, idazleak eskuz idatzi ez arren, idazlearen eskutik sorturiko lekukotzak baitira. Eta garrantzitsuena, eskuizkribu modernoek ari garenean, ez da dokumentuok eskuz idatzita egotea, baizik eta idazlearen esku-hartzea lekukotzea eta finkatzea sorkuntza-prozesuan. Izan ere, eskuz idatzi gabeko inprenta-probek, zuzenketak ageri dituzten tapuskritoek eta, eskuz idatziak ez izan arren, idazlearen esku-hartzea azaleratzen duten lekukotza idatziek ere eskuizkribu-izaera izan dezakete.

2.3. *Dossier genetiko* eta zirrimarrak

Idazketa-prozesu zehatz baten baitan zirriborroei eman dakiekeen balioa euren amai-gabetasunean datza: zirriborroak zerbait sortzeko bitarteko direlako dira baliagarri bere horretan; eginbidean den hori erakusten dute eginbidearen une zehatz horretan, eta, ondorioz, idatzitakoaren historiaren parte dira, kronologia bat zehazteko eta testuaren sorkuntza-prozesuaren berri emateko erabilgarri baitira. Sarritan, zirriborroaren eta aurre-testuaren artean nahasketak sortu dira, zirriborroak lekukotasun zehatz bat izendatzeko onetsi eta, aldiz, zirriborro multzoaren gainean egindako interpretazio-ikerketari *aurre-testu* deituz (Bellemin-Nöel, 1977; Biasi, 1998). Hain zuzen, gaizki-ulertu horiek saihesteko, *aurre-testu* terminoaren erabilera mantendu arren, Grésillonnek (1994, 109. or.) *dossier genetiko* termino neutroagoa proposatzen du sinonimo gisa, eta ondorengo definizioa gehitu: «un ensemble constitué par les documents écrits que l'on peut attribuer dans l'après-coup à un projet d'écriture déterminé dont il importe peu qu'il ait abouti ou non à un texte publié».

Bestalde, aurre-testua eta zirriborro zehatzak argitaraturiko testu behin betikotik bereizten dituen kontzeptu esanguratsua *zirrimarra* da: «la rature est un phénomène spécifiquement génétique, qui agit sur un environnement lui-même soumis à d'incessantes métamorphoses» (Biasi, 2011, 129. or.). Mugimenduan dagoen idazketaren adierazle da, etengabe aurrera egitea eta atzera itzultzea den ekoizte-bidean dagoen testualizazioaren ezaugarria baita marka uzten duen zirrimarra. Zirrimarrak, hain zuzen, ordura arte idatzitakoaren kenketaren mugimendua adierazten du lehenik, ukapena edo damua adierazten duen mugimendu negatiboa, hain justu; eta bigarrenik, kenketaren osteko gehiketaren mugimendu sortzailea etor daiteke gehienetan. Edonola ere, hainbat zirrimarratze-ekintzaren funtzioa zehaztea nahiko erraza izan badaiteke ere, beste zenbait definitzea oso konplexua izan daiteke.

2.4. Idazketa-moduak eta idazketa-aldiak

Eskuizkribuen eta zirriborroen azterketa genetikoetatik, eskuarki, bi idazketa-modu nagusi nabarmendu izan dira: bata, *écriture à programme* deritzona, eta bestea, *écriture à processus* (Hay, 2002, 72-75. or.). Edonola ere, Biasiren (2008, 31-32. or.) izendapena egokiagoa litzateke, zehatzagoa den heinean: *programmation scénarique* eta *improvisation rédactionnelle*. Lehenengoaren kasuan, sorkuntza-prozesua aurre-lanketa zorrotz baten bidez garatzen dute: eskema, ohar, laburpen, gidoi eta egituratze mailakatuaren bidez, urratsez urrats sorkuntzarako prestaturiko hastapen-egitura edo asmoa hartzen

da jarraitu beharreko ezinbesteko hezurdura gisa. Horrela, idazketa aurreko antolaketa idatziak berebiziko esangura bereganatzen du. Aldiz, izenak berak esan bezala, inprobisazio bidezko idazketari dagokionez, idatzizko eskemarik gabe egiten diote aurre idazketa-aldiari, eta lehen kolpe horretan idatzitakoa berrirakurriz eta berridatziz egiten du idazketak aurrera. Inprobisazio bidezko idazketak ez du esan nahi idazleok zerotik idazten hasten direnik, hots, inprobisazio hutsez hasten direnik idazten ea zer aterako, baizik eta lekukotasun idatzirik ez dutela erabiltzen idazketa-aldiari ekin aurretik. Muturreko bi banaketa nagusi horien artean, ordea, tarteko idazketa-bideak daude, eta sarritan elkarrekin nahasten dira gidoi bidezko nahiz inprobisazio bidezko idazketa-uneak.

Idazketa-aldien banaketari dagokionez, Biasi (1998, 2011) bera da banaketa-tipologiaren proposamen garatuena aurkeztu izan duena eta bere banaketari jarraituz, oro har, laualdi nagusi bereiz daitezke idazlan baten genesiaren bilakaeran: erredakzio-aurreko aldia; erredakzio-aldia; argitaratze-aurreko aldia; eta argitalpen-aldia.

Bestalde, batzuetan banaketa horri argitalpen-osteko garaia gehitu behar zaio, argitaraturiko lan bat ondoren etorriko den beste lan baten ernamuin, abiapuntu eta oinarri bihur daitekeenez. Horrela, aurrez publikaturiko testu hori idazketa-prozesu berriaren aurre-testu gisa ulertu beharko litzateke, hots, berridazketa ondorengo berrargitalpenaren edo edizio berrituaren aurretik argitara emandako lana ere aurre-testu bilakatzen da. Izatez, aldaeren kritikari lotuagoa egon daitekeen arren, obraren bilakaeraren berri ematen denez, zilegi da, eta beharrezko, hala ulertzea.

3. Sarrionandiaren poesia-berridazketak

Joseba Sarrionandiaren kasuan esan daiteke 2011tik aurrera sistematikoki ari dela, bai narratiban eta baita poesian ere, jadanik agortuta zeuden bere lanen errebisioa egiten eta berrargitalpenetan aurreko lanetako akatsak zuzentzen eta moldatzen, eta azken batean, aurrez idatzitakoa berridazten. Horrenbestez, eskuizkribu modernorik edo zirriborrorik izan gabe ere, argitara emandako bertsioren aldaeren erkaketa egitea ere izan daiteke kritika genetikoa egiteko urrats bat, eta Sarrionandiaren berridazketek horretarako aukera asko eskaintzen dituzte. Edonola ere, sorkuntza-prozesua sakonago ikertzeko, ezinbestekoa da eskuizkribuak behatzea eta aztertzea. Jarraian, ipuingintza albo batera utzita (ipuingintzako berridazketak eta beste aztertzeak, ik. Ayerbe, 2016), poesia-berridazketen zenbait zertzelada eskainiko dira.

3.1. *Marinel zaharrak*

Edonola ere, poesiari dagokionez aurrez ere jorraturiko bidea genuke Sarrionandiaren eta, hori horrela, *Marinel zaharrak* (1987) poema-liburua funtsezko bilakatzen da. Izan ere, «Irakurleentzako abisua» hitzaurrean adierazi bezala, *Izuen gordelekuetan barrena* (1981) agortu eta berrargitaratzea eskaini zitzaionean, nahiago izan zuen has-tapen-liburuko poemetako batzuk ondoren idatzirik beste poema batzuekin batera tartekatzea. Lehen poemategiko 43 poema berreskuratu zituen Sarrionandiak *Marinel zaharrak* liburuan eta bi liburuetakoko poemak tentuz alderatuz gero, jatorrizko argi-

talpeneko poemek hainbat eraldaketa izan dituztela ere jabetu gaitzke. Gainera, bat gatz Eider Rodriguezek (2013, 150. or.) berresten duenarekin: «erreskatatua izatearen arrazoa erreskatatua ez izana bezain esanguratsuak dira, Sarrionandiaren ustez poema hori (dena delako motiboagatik, izan daitekeena estiloa, edukia...) indarrean dagoen edo ez dagoen adierazten baitu». Eraldaketa nagusien artean, poema berriak txertatzea («Kristal garbitzailea»), bariazioak eranstea («Bitakora kaiera», «Soldadu hilaren ama»), hainbat poemaren izenburuak moldatzea («Fernando Pessoa», «Itsasoaren kontrako har-kaitzak», etab.), eskaintzak aldatzea («Hilarria», «Oskorriko arragoak») eta epigrafeak eraldatzea aipa daitezke. Halere, alderaketa poemaz poema eta hitzez hitz eginez gero, testu-erlaketak izan badira ere («Apirilari gorazarre»-n, adibidez), gehitu, kendu edo moldatu diren hitzak urriak direla esan daiteke.

Bestalde, Sarrionandiaren poemagintzan *Marinel zaharrak* liburuak duen garrantziaz jabetzeko, kontuan izan behar da ondoren argitara emango zituen *Gartzelako poemak* (1992) eta *Hnuy illa nyha majah yahoo* (poemak 1985-1995) liburuetako zenbait oinarri ere bertan aurkitzen direla, liburuko «Gartzelako poemak (1980-1985)» eta «Tren luzeak eta bustiak (1985-1986)» ataletan, hain zuen.

1992an argitaraturiko *Gartzelako poemak* lanean aurrez *Marinel zaharrak*en argitara emandako 34 poemekin batera beste 39 poema berri gehitu ziren eta ondoren, «Post scriptum» atalean kartzelatik ihes egin osteko 1986. eta 1991. urteen artean idatziriko beste 8 poema bildu ziren, horietatik 3 aurrenekoz *Marinel zaharrak*eko «Tren luze eta bustiak (1985-1986)» atalean ere agertuak. Eta *Izuen gordelekuetan barrena* liburuko poemekin *Marinel zaharrak*en egin bezala, poema bat baztertu, hainbat poematan izenburuak edota epigrafeak aldatu eta zenbaitetan edukia ere moldatu da. Eraldaketa horietatik guztietatik deigarriena, agian, «Gure begiek ez dute malko isuritzeko gogorik» eta «Presoen amak» poemetan forma plurala nola txertatu den izan daiteke, jatorrizko bertsiotan *ni* poetikoa gailentzen zen lekuan orain *gu* bati egiten zaiolako erreferentzia eta, ondorioz, kartzelako gainerako presoekiko halako kontzientzia sozial bat ematen baita aditzera.

Bestalde, 1995ean kaleraturiko *Hnuy illa nyha majah yahoo* (poemak 1985-1995) liburuan «Tren luze eta bustiak (1985-1986)» ataleko 15 poema berri argitaratzen dira (horietako hiru, «Preso egon denaren gogo», «Lagun presoak» eta «Joseba Asensio» poemak, *Gartzelako poemak*eko «Post scriptum» atalean ere barneratu ziren). Ez alferrik, *Hnuy illa nyha majah yahoo*ko bigarren atala ere «Tren luze eta bustiak» deitzen da eta bertan biltzen dira aurrez *Marinel zaharrak*en argitara emaniko poema gehienak; beste hainbat, ordea, liburu berriko beste ataletan sakabanatuta daude. Poemotan, izenburuek («Olerkaria», «Euri eguna»), epigrafeek eta testuek ere (bereziki «Gabriel Aresti» poemak) jasan dute eraldaketarik.

Azkenik, *Hnuy illa nyha majah yahoo* (poemak 1985-1995) liburuko poema-kopurua, narrazioen uztarketa eta liburuaren edizioaren gainerako berezitasunak (azal gogorreko eta tamaina handiko argitalpen zaindua) aintzat hartuz, poema-bilduma egilearen ibilbide poetikoaren mugarrigisa har daiteke eta «behin-betiko antologiaren aurrean gaudela iradokitzen digu» (Rodriguez, 2013, 182. or.). Behin betikoa behin-behineko bihurtzen da, ordea, 1995ean argitara emandako *Hnuy illa nyha majah yahoo* 2013an berrargitaratzerakoan aurrez argitaratuko poemei aldaerak gehitzen dizkien neurrian.

3.2. Poema-liburuen berrargitalpenak eta berridazketak

Esan bezala, Sarrionandiak sistematikoki ekin zion aurrez argitara emandako lanak berrargitaratzean eraldaketak txertatzeari eta horixe kausituko dugu 2011ko *Kartzelako poemak*, 2013ko *Hnuy illa nyha majah yahoo* (poemak 1985-1995) eta 2014ko *Izuen gordelekuetan barrena* edizio berrituetan. Gainera, hiru argitaletxe arduratu dira edizio eraberritu horietaz (Susa, Elkar eta Pamiela, hurrenez hurren), eta berridazketa- eta berrargitalpen-prozesu bakoitzak bere xehetasunak ditu.

Kartzelako poemak lanean paratestuan eta aurrez kaleratu gabeko 6 poema txertatzeak dakar aldaketarik nabarmenena eta, aldiz, testu-erlaketak oso urriak dira, nahiz eta zenbait xehetasun txiki erantsi poemen izenburu eta testuetan. Era berean, *Izuen gordelekuetan barrenaren* berrargitalpenean ere liburuaren eta poemen paratestuan aurkitzen dira aldaera esanguratsuenak (jatorrizkoan ez bezala, poema guztiek izenburua dute orain, eta epigrafeak zein eskaintzak aldatu egin dira). Deigarria da, bestalde, *Marinel zaharrak* libururako moldatu eta berridatzi ziren *Izuen gordelekuetan barrenako* jatorrizko poemak berrargitaratzerakoan ez direla kontuan izan orduan txertaturiko moldaketak. Beraz, ondorioztatu daiteke 2014ko edizioa prestatzerakoan Sarrionandia jatorrizko 1981eko edizioko testuetan oinarritu dela.

Edonola ere, 2013an kaleraturiko *Hnuy illa nyha majah yahoo* (poemak 1985-1995) edizio berrituak eskaintzen ditu eraldaketa ugariak. Sarrionandiak hitzaurrean honako hau dio: «Orain, berredizio honetarako, oker batzuk zuzendu, idazkera ortografia bateratura egokitu, apur bat berrantolatu eta pasarte batzuk berridatzi dira, testua osorik kendu edo berririk sartu gabe, hitzaurrea, esplikazio edo abisu hauxe salbu» (Sarrionandia, 2013 [1995], 10. or.). Eta halaxe da, baina ezin zaie baliorik kendu aldaketa horiei, asko baitira. Jatorrizko ediziotik poema berri edo argitaragaberik gaineratu eta kendu gabe ere, lehenik eta behin poemen testuinguru orokorra zein zehatza da eraldatu dena: zenbait poemaren tituluak moldatu egin dira (27 poematan); egitura orokorrean atal berri bat erantsi da («Mundua zabala eta arrotza da») eta, ondorioz, poemak berrantolatu egin dira; atalei izenburua emateko epigrafeak zein poemen sarreretako aipuak ere aldatu egin dira (zenbaitetan aurrez zeudenak kendu eta berriak gehituz edota, besterik gabe, ez zeuden lekuan berriak txertatuz); jatorrizko edizioko irudi batzuk baztertu egin dira... Beraz, jatorrizko bertsioekin erkatuz, testuingurua aldatzearekin batera testua ere aldatu egiten denez, *Hnuy illa nyha majah yahoo*ko poema gehienak berridatzi egin direla ondorioztatu behar da.

Gainera, testu-aldaerei dagokienez, moldaketa eta eraldaketa askotxo egin ditu Sarrionandiak, orain arte azterturiko poema-liburuen berrargitalpenetan baino askoz gehiago, inondik ere (lerrotze itxuraldatuta, hitz, esaldi eta ahapaldiak gehituta). Oraingoan ere gehiago izan da jatorrizko testuari gehiturikoa, ezabatu edo kendurikoa baino, eta gehiketak txertatzeko joerak direla eta, esanguratsua da askotan poemaren amaieran edota, zehatzago, poema ixten duen azken ahapaldian gaineratzen direla moldaketa nagusiak, poemaren amaiera aldatzearekin batera poema guztia eraldatuz («Aldaketarik aldaketa», «Munduari bira», etab.). Bestalde, beste zenbaitetan poemaren barneko bertso-lerroetan eta ahapaldietan pilatzen dira berridazketan erantsitako testu berri esanguratsuak («Minotauroarena», «Gabriel Aresti», etab.). Edonola ere, zentzu guztietan eraldaketarik gehien jasan duen poema «Damuaren pelikula» da.

Beraz, adibide hauek guztiak kontuan izanik, argi geratzen da berrargitalpenotan aldaketa dela aldatzen ez den gauza bakarra, eite eta molde askotariko aldaketak dira, gainera. Behin-behinekotasuna eta etengabeko bilatze- eta eraberritze-ahalegin bat nabari da idazlearengan, poemak ez iraungitzeko behin eta berriz eraldatu eta eguneratu nahiko balitu bezala. Zeregin horretan, Sarrionandiaren biografiako auziek ere izango zuten eragina, egileak nekez gaintitu ahal izan baitu bere eskuizkribuen eta ondoren argitaraturiko edizioen arteko esku-hartzearen amildegia. Edonola ere, berrargitalpen berriek erakusten duten joera hori aurrez *Marinel zaharrak* lanean ere jorratu zuela ikusi da, 1987an jada bere aurreko poemen aukeraketa eta bertasio eguneratuak egiteko jaidura erakutsi baitzuen. Bestalde, poemategi horretako aleak ondoren etorriko ziren liburuen ernamuin bilakatu ziren eta, beraz, berridazketa Sarrionandiaren poetikan ezinbesteko baliabidea dela nabarmendu behar da eta, hori horrela, poemen berridazketek idazlearen sorkuntza-bilakaera azaleratzen dutela berretsi behar da.

4. Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako*: berridazketatik eskuizkribura

Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* lehen eleberria esanguratsua da alderdi askotatik, baina, bereziki, garrantzitsua da euskal nobela modernoa finkatu zuelako gaiaren eta konta-tekniken berritasuna aintzat edukirik. Jakinaenez, bi plano narratibo independentetan egituratzen da nobela: batean, *berritsu* izendaturiko gizona ageri da estazio batean eta telefono-zentralita batean hitz eta pitz, eta bestean, haurdun gelditu den Gisèle protagonistak abortatzeko egin beharreko urratsak kontatzen dira. Eta bi planoen artean lotura semantikoak izan arren, irakurlearen interpretazioaren esku gelditzen da plano biek elkarrekin duten erlazioa. Jarraian, bi planoen auzia aintzat hartuz, 2007ko nobelaren berridazketan eta 1968ko eskuizkribuan auzi hori nola jorratzen den aztertuko da, *Egunero hasten delako* nobelaren sorkuntza-prozesuaren erakusgarri.

4.1. 2007ko berridazketa

Egunero hasten delako nobelaren argitalpena 1969koa bada ere, jatorrizko Lur argitaletxearen edizioaren ondotik 1979an Hordagok eta 1987an Erein argitaletxeek kaleratu zuten (azken etxe horretan berrargitalpen asko izan zituen). Eta hain zuzen, 2007an berrargitalpen esanguratsu bat izan zuen, Saizarbitoriaren hitzaurre berri bat gehitzearekin batera egilearen berridazketa eskaintzen zen heinean. Hitzaurrean zehazten ditu berridazketaren eta birmoldaketaren inguruko argibideak:

Beraz, han eta hemen perpausak aldatzen hasi nintzen, paragraforen bat ere bai –neurea zenez, ez bainuen testua errespetatu beharrik–, eta azkenerako, bosgarren kapitulutik aurrera batez ere, ia dena berridazteari ekin nion, errazago gertatzen baitzitzaidan. Oso lan neketsua eta aspergarria izan da, esan dut lehen ere, testua traizionatzea bainuen, baina neurri batean baino ez, nolabait esateko, lehengo bera izaten jarraitu behar zuelako. Esango nuke lortu dudala, jatorrizko bertasioa berean mantenduz, pun-

turen bat argitzeaz gain nobela han eta hemen sarriegi kaltetzen zuten desegokitasun narratiboez libratzea (Saizarbitoria, 2007, 20-21. or.).

Dena den, nekez izango da testu bat lehengo bera behin aldaerak txertatuz gero eta, hori horrela, aldaeren eraginez jatorrizko bertsioa ez den beste bertsio bat da berridazketaren emaitza. Egia da aldaketek ez dutela zentzu hertsian argumentuan eragiten, hau da, argumentuko trama nagusiak edota nobelako protagonistak zein baliabide narratibo nagusiak bere horretan diraute bertsio birmoldatuan ere. Baina zentzu zabalean, xehe-tasunen batuketek osatzen dute argumentua edo pertsonaien karakterizazioa eta bertsio berridatzian xehetasun asko gehitu, kendu, aldatu, moldatu, egokitu eta lekualdatu dira.

Oro har, esan dezagun 2007ko bertsioan testuartekotasun-aipuak gehitu direla, bai aipu gisa (Tolstoi, Nabokov, Beckett eta *Godoten esperoan*, Sartre...) bai eta pertsonaien karakterizazioarekin lotuta ere. Adibidez, pertsonaia bati buruz Renoirren arraunlariaren antza duela erantsi da eta beste pertsonaia bati dagokionez, Picassoren *Gernika* litografia kokatu da bere logelan film-posterren ondoan, aurrez soilik poster aski pornografikoak aipatzen ziren lekuan.

Espero zitekeen bezala, aldaera asko abortuarekin eta medikuekin loturiko eguneratzeak eragindakoak dira eta horren erakusle dira haurdunaldi-probaren moldaketa eta, bereziki, abortuaren ebakuntzaren eszena; bertsio eraberrituan askoz ere aseptikoagoa da, dramatismo gutxiagokoa, odol, oinaze eta garrasi gabekoa.

Azkenik, pertsonaiekin loturiko aldaerak genituzke. Hainbat pertsonaiaren presentzia murritzu egin da (Miller doktorea), eta kontrara, protagonistaren amaren presentzia asko ugaritu da. Gehituriko pertsonaia guztien artean, ordea, geltokian protagonistari hurbilduko zaion adineko gizona da garrantzitsuena. Nobelako «berritsua» izan daitekeela argi dago, geltokian maleta batekin bakarrik dagoen neskarenagana hitz egiteko asmoz adeitsuki hurbiltzen den tabako beltzaren usain sarkorreko gizona baita. Horrela, berridazketan *Egunero hasten delako* nobelako bi planoak une zehatz batean plano bakarrean batu direla edo daitezkeela aditzera emateko saiakera egon badago. Eszena hori txertatuta, idazleak auzi honen inguruko berrirakurketa bat planteatzen du eta berrinterpretazioak egiteko aukerak ugaritzen, baina orain arte eginiko interpretazioak ezeztatzea iritsi gabe. Hori horrela, 2007ko berridazketaren adibide paradigmaticoa bilakatzen da nobelako bi planoek bat egiten ote duten aditzera ematen den testuaren inguruko eraldaketa.

4.2. 1968ko eskuizkribua eta bi planoen auzia: *excipit* bat zirrimarratzearen ondorioak

Testu-genesiaren azterketa sakona egiteko aurre-testuak ezinbestekoak dira eta *Egunero hasten delakoren* sortze-prozesuaren bilakaera ahalik eta osoen ikertzeko asmoz Saizarbitoriarengana jotzea erabaki genuen argitaratu gabeko lekukotasun idatziak eskuratzeko. Halaxe lortu genuen, idazlearen eskuzabaltasunari esker, 1968ko eskuizkribuaren kopia.

Dena den, 1968ko eskuizkribuaren eta 1969ko lehendabiziko argitalpenaren arteko erkaketatik eratorri daitekeenez, agerian geratzen da eskuizkribuaren eta argitaraturiko

nobelaren artean bestelako idazketa-aldiren bat izan dela, nahiz eta idazketa-aldi horren lekukotasunik ez dugun eskuragarri, besteak beste, eskuizkribuan ez zeuden pasarte asko gehitu baitira argitaraturiko nobelan.

Kontuan izan behar da 1968ko zirriborroa idazlearen inguru pribatuari dagokion lekukotasuna dela, eskuizkribu modernoa, eta nobelaren erredakzio-aldiko aroari dagokion neurrian, ez dela inolaz ere argitaratu aurreko aldiko zuzenketa urriak ageri dituen aurre-testua. Hori horrela, testua artean eginbidean delako zantzu nabarmenak aurki daitezke nobelaren zirriborroan: egilearen zalantza eta ezbaiak (adibide argiena, nobelaren une bateko amaierako lerroak zirrimarratu eta ordezkatzeari litzateke), metakomentarioak («luzatu», «landu», etab.), zuzenketez duten garrantzia, berritsuaren diskurtsoko zehazgabetasunak (kokalekua, narratarioen auzia)...

Halere, eskuizkribuak biltzen dituen ezaugarri eta elementu garrantzitsuenen artean (paratestuaren berezitasunak, eskema, zirrimarrak, zuzenketa-proposamenak, berritsuaren eta solaskideen kokalekuaren auzia), aurrez aipaturiko bi planoen arteko auziari helduko diogu. Izan ere, sorkuntza-prozesuaren baitako erabakiaren eta zirrimarra batek duen garrantziaren berri ezin hobeki erakusten du.

Egunero hasten delako nobelaren bi planoen auziak zeresan asko eman du. Lasagabasterrek (1979, 11. or.) bigarren edizioari eginiko hitzaurrean honela zioen: «nobela, texto bakarra denez, batasunen bat izan behar duelarik, bi historia horien arteko erlazioa edo nolazpaiteko lotura aurkitu beharrean gaude». Hori horrela, Gisèlerin kontakizuneko narratzailea kanpodiegetikoa izanik eta berritsua bere baitako diskurtsoko narratzaile bardediegetikoa, berritsua bera Gisèlerin istorioaren narratzailea izan daitekeela planteatzen du: «Nor da, orduan, Gisèlerin historia hori kontatzen digun kontalaria? Narrazio osoaren logikak berritsua bera dela esatera bultzatzen gaitu» (Lasagabaster, 1979, 16. or.). Dena den, Saizarbitoriaren *100 metro* libururako 1985ean eginiko hitzaurrean baztertu egin zuen interpretazio-bide hori.

Hernández Abaituak, aldiz, estrategia narratiboen araberrako irakurketa proposatzen du eta ondorioztatzen du bi azpidiskurtsoen arteko erlazioa ideologikoa dela nagusiki:

Tesi-eleberria izateak esplikatzeko du beste ezer (*sic*) baino hobeto obra honen egitura, inoiz gurutzatzen ez diren bi azpidiskurtsoen existentzia [...] Kontatzen diren bi azpihistoriak ez dira konplexuak, baina bai planoak konbinatuz sortzen den diskurtsua. Konplexutasuna ez dator bi azpihistoria hauek txandakatzetik bakarrik, diegetikoki ez nahastetik baizik. Eta tesi-eleberria dela frogatzeak azaltzen du ongien bi azpihistorien arteko erlazioa, hor baitago giltzarria eleberria zergatik dagoen antolatuta dagoen moduan ulertu ahal izateko (Hernández Abaitua, 2008, 178. or.).

Esan bezala, nobelaren gaineko harrera eta irakurketa kritiko nagusiak nobelaren bi planoen arteko erlazio-loturak aztertuz eratorri dira, hori izan baitzen, besteak beste, Saizarbitoriaren lehendabiziko nobelak zekarren berritasun formal nagusia.

Aldiz, 1968ko eskuizkribuko azken bi orrialdeek osaturiko *excipitari*, hau da, eskuizkribuko azken-azken hitzei erreparatzen badiegu, berritsuak honakoa dio: «Behin, hementxe bertan Durkehin'eko estazioan. Denbora ba duzu adiskide, historia bat konta-

tuko dizut...» (41r-41v. fol.). Eta lerro batzuk beherago, eskuizkribuko azken paragrafoa izan behar zuten azken bost lerroak zirrimarratuta daude, baina, zorionez, zirrimarraren azpiko testua irakurgarri bezain esanguratsu suertatzen da: «...Historia. Ba, trenari itxoiten zegoen neska maleta batekin bakarrik, trenari itxoiten zegoen neskatilla bat ikusi nuen: Guissele Sergier. Hogeita bi urte, kirrua, begi urdinak, luzea, mehea... Dena. Bonboi bat». Ondoren, gezi bidez beste testu bat eransten da.

Beraz, azken orrialdea mugimenduan dagoen testuaren adierazle ezin hobea bihurtzen da, zirriborrotik argitalpenerako testuak izandako bilakaeraren berri biltzen duelako. Izan ere, idazketa-aldiko une zehatz batean eskuizkribuaren *excipitak* berritsuak solaskideari kontatuko dion istorioaren hasieraren berri emango luke eta horretarako, irakurleak jada irakurria lukeen Gisèleren deskribapena errepikatuko litzateke nobelaren amaieran, bi planoen arteko erlazio-loturen auzia argituz eta Gisèleren istorioaren narratzailea berritsua dela aditzera emanez.

Excipiteko hitzak zirrimarratu eta ordezko pasarte gehitu aurretik, beraz, idazlearen asmoa nobelaren amaieran bi planoek bat egitea eta euren arteko erlazio-loturen auzia argitzea zela erakusten du eskuizkribuaren azterketak. Eta horrenbestez, Lasagabasterrrek bigarren edizioeko hitzaurrean proposatzen zuen irakurketa, hau da, berritsua dela Gisèleren historia kontatzen duena, agerikoa eta esplizitua litzateke.

Baina zirriborroak erakusten duenez, une batean eskuizkribuko *excipit* hitzak zirenak zirrimarratuak izan dira eta ondorioz, mugimendu horri esker, jada ez dira nobelako azkenak izango. Azken hitz horiek zirrimarratzea ekintza erabakigarria izango da *Egunero hasten delako* nobelaren bilakaeran, batetik bi planoen arteko erlazio-loturak argitzea galarazten duelako eta hain zuzen, bi planoak ez gurutzatu izanari egotzi izan baitzaio, besteak beste, Saizarbitoriaren lehendabiziko nobelaren konta-tekniken berritasuna eta originaltasuna. Harrezkero, askotariko irakurketak eta interpretazioak egin beharko dira bi planoen arteko erlazio-loturak azaltzeko, izan erlazio semantikoak, lotura narratiboak edota tesi-nobela moderno eta eraginkor bat egiteko idazlearen ahalginiari loturikoak. Edonola ere, ez dugu uste urrunegi joatea denik une zehatz bateko zirrimarratze-ekintza horrek nobelaren idazketa, eta, ondorioz, ondorengo irakurketak goitik behera baldintzatu dituela berrestea.

5. Ondorioak

Kritika genetikoaren ikerketa-eremua aintzat edukirik, behin betiko testuari baino gehiago behin-behineko aurre-testuei erreparatzea, zirriborro eta eskuizkribu modernoak ikertzea, dossier genetikoa eratu eta interpretatzea, idazketa-mota eta -aldien banaketak bereiztea, etab. tresna metodologiko bikain bihurtu dira literatur lanen analisi hermeneutikorako. Ikusi dugunez, ordea, sarritan ezinezkoa izaten da idazlearen eremu pribatuko eskuizkribu modernoak eskuratzea eta, halere, berrargitalpenetan txertatzen diren aldaerak aztertzea izan daiteke urrats bat kritika genetikoaren hurbilpen baterako. Sarrionandiaren poemagintzari dagokionez, aurrez *Marinel zaharrak* lanean eginiko berridazketa-ildoek jarraipen sistematikoa izan dute ondorengo poema-lanen berrargitalpenetan, eta

poema askotako gehiketa bidezko aldaerekin batera, poemen paratestuan txertatu dira aldaketa gehien: izenburuetan, eskaintzetan eta, bereziki, epigrafeetan. Aldiz, Saizarbitoriaren *Egunero hasten delakoren* 2007ko berridazketaren azterketaren ostean, 1968ko zirriboroko mikroazterketa bat egin da, bi planoen auziari dagokiona hain zuzen, eta erredakzio-aroko eskuizkribuaren garrantziaz eta *excipita* zirrimarratzeak nobelaren taxukera narratiboan izan zuen ondorioez jabetu ahal izan gara. Izan ere, aztergaiaren fokua amaituriko eta argitaraturiko obratik idazketa-prozesuaren azterketara aldatuz, lekukotasun idatzietan sorkuntza-uneke gatazkak edota hautu poetikoak eginbidean atzeman daitezkeela frogatu dugu nobelako bi planoen auziari soilik erreparatuz.

Erreferentziak

- Ayerbe, M. (2016). *Euskal literatura garaikidea kritika genetikoaren argitan: Aresti, Sarrionandia, Saizarbitoria eta Atxagaren idazlanen sorkuntza prozesua aztergai* (doktore-tesia). UPV/EHU, Bilbo. <http://hdl.handle.net/10810/19554> helbidetik eskuratua.
- Bellemin-Nöel, J. (1972). *Le texte et l'avant-texte. Les brouillons d'une poème de Milosz*. Paris: Larousse.
- Bellemin-Nöel, J. (1977). Reproduir le manuscrit, présenter les brouillons, établir un avant-texte. *Littérature*, 28, 3-18.
- Biasi, P.-M. de (1998). Qu'est ce qu'un brouillon? Le cas Flaubert. In M. Contat & D. Ferrer (zuz.), *Pourquoi la critique génétique? Méthodes, théories* (31-60. or.). Paris: CNRS Éditions.
- Biasi, P.-M. de (2008). Les six grandes étapes de la recherche en génétique des textes. In A. Crasson (zuz.), *L'Édition du manuscrit. De l'archive de création au scriptorium électronique* (25-46. or.). Louvain-La Neuve: Academia Bruylant.
- Biasi, P.-M. de (2011). *Génétique des textes*. Paris: CNRS Éditions.
- Ferrer, D. (1998). Le matériel et le virtuel: du paradigme indiciaire à la logique des mondes possibles. In M. Contat & D. Ferrer (zuz.), *Pourquoi la critique génétique? Méthodes, théories* (11-30. or.). Paris: CNRS Éditions.
- Grésillon, A. (1994). *Éléments de critique génétique. Lire les manuscrits modernes*. Paris: PUF.
- Hay, L. (zuz.). (1979). *Essais de critique génétique*. Paris: Flammarion.
- Hay, L. (2002). *La Littérature des écrivains. Questions de critique génétique*. Paris: José Corti.
- Hernández Abaitua, M. (2008). *Ramon Saizarbitoriaren lehen eleberrigintza*. Bilbo: UPV/EHU.
- Lasagabaster, J. M. (1979). Bigarren edizioaren hitzaurrea. In R. Saizarbitoria, *Egunero hasten delako* (5-19. or.). Donostia: Hordago.
- Lebrave, J. L. (1992). La critique génétique: une discipline nouvelle ou un avatar moderne de la philologie? *Génesis*, 1, 33-72.

- Lois, É. (2005). De la filología a la genética textual. Historia de los conceptos y las prácticas. In F. Colla (koord.), *Archivos. Cómo editar la literatura latinoamericana del siglo XX* (43-83. or.). Poitiers: CRLA-Archivos.
- Rodríguez, E. (2013). *Joseba Sarrionandiaren «Lagun izoztua» eleberriko hiru itsasoak. Irakurketa proposamen bat* (dokto-re-tesia). UPV/EHU, Bilbo. http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Eider_Rodriguez_TESIA.pdf.
- Saizarbitoria, R. (1969). *Egunero hasten delako*. Donostia: Lur. [Berrarg.: 1979, Hordago; 1982, Erein; 2000, edizio berritua; 2007, poltsikoko edizioa].
- Saizarbitoria, R. (2007). Hitzaurrea. In *Egunero hasten delako* (7-21. or.). Donostia: Erein.
- Sarrionandia, J. (1981). *Izuen gordelekuetan barrena*. Bilbo: BAK. [Berrarg.: 2014, Pamiela].
- Sarrionandia, J. (1987). *Marinel zaharrak*. Donostia: Elkar.
- Sarrionandia, J. (1992). *Gartzelako poemak*. Zarautz: Susa. [Berrarg.: *Kartzelako poemak*, 2011].
- Sarrionandia, J. (2013 [1995]). *Hnuy illa nyha majah yahoo (poemak 1985-1995)*. Donostia: Elkar.
- Zweig, S. (2001). *El mundo de ayer: Memorias de un europeo*. Bartzelona: Acantilado.

Aurkibidea / Índice

- 11 Aitzinsolasa
- 13 Prólogo
- 15 Testu-corpusen informazio morfosintaktikoaren etiketatze automatikoa
hizkuntz ezagutzan oinarrituz: zenbait arazo, hainbat erronka
ITZIAR ADURIZ, JOSE MARI ARRIOLA
- 31 Bertsolaritzaren genealogia subalternoak
LUZIA ALBERRO, K. JOSU BIJUESCA
- 47 Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketa baten
behinbehineko emaitzak
ESTIBALIZ AMORRORTU, ANE ORTEGA, JONE GOIRIGOLZARRI
- 63 Garaziko euskararen azterketa diafasikoa
ALEXANDER ARTZELUS MUXIKA
- 81 Berridazketak Sarrionandiaren poesian eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten
delako* nobelan: hurbilpen genetiko bat
MIKEL AYERBE SUDUPE
- 95 Somorrostro, mendebaldeko euskararen muga
GOIO BAÑALES, MIKEL GORROTXATEGI
- 113 Euskara sasoian? Euskararen sozializazioa Gasteizko
pilota-elkarte batean
IÑIGO BEITIA
- 127 Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa
GARBIÑE BEREZIARTUA ETXEBERRIA, BEÑAT MUGURUZA ASEGINOLAZA
- 141 Lingüística Histórica: estado actual
LYLE RICHARD CAMPBELL
- 163 Lenguas y sociolingüística en el interior del País Vasco en el siglo XIX:
testimonios del Archivo Zavala
BRUNO CAMUS BERGARECHE, SARA GÓMEZ SEIBANE

- 177 Les verbes psychologiques du basque : typologie et diachronie
DENIS CREISSELS, CÉLINE MOUNOLE
- 195 Testu-generoaren irudikapena eta erabilera ahozkoaren
didaktikan
LEIRE DIAZ DE GEREÑU LASAGA, ITZIAR IDIAZABAL GORROTXATEGI, LUIS MARI
LARRINGAN ARANZABAL
- 209 Zentsura-ikasketak gaur egun: aplikazioa euskal literaturan
AMAIA ELIZALDE ESTENAGA
- 223 Azentuazioaren eremu sintaktikoak mugatzen
ARANTZAZU ELORDIETA
- 237 Sintaktikoki etiketatutako euskarazko corpus historikoa
eraikitzen
AINARA ESTARRONA, IZASKUN ETXEBERRIA, RICARDO ETXEPARE, MANUEL
PADILLA-MOYANO, ANDER SORALUZE
- 253 Ahozkotasunaren didaktika ikuspegi dialektikotik abiatuta
AINHOA EZEIZA, JAVIER ENCINA
- 267 Ahozko euskararen erabilera eskolan: gako zenbait irakasleen prestakuntzarako
INES M. GARCIA-AZKOAGA, OLATZ BENGOETXEA, JOSUNE ZABALA
- 283 El corónimo navarro *Salazar / Zaraitzu*: origen y desarrollo de su doble
denominación
ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE
- 295 *Fontes Linguae Vasconum*: orígenes y documentos para una Historia
del Euskara
JOAQUÍN GORROCHATAGUI
- 315 Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz
MIREN IBARLUZEA SANTISTEBAN
- 329 Basque among the world's languages: a typological approach
IVÁN IGARTUA
- 351 Familias vascohablantes: propuesta de definición desde la socialización
lingüística
PAULA KASARES
- 363 Formation linguistique de basque aux enseignants, pour un enseignement
bilingue à parité horaire au Pays Basque Nord
BEÑAT LASCANO
- 375 Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren ekarpena euskal poetika erruralari
ITZIAR MADINA
- 391 Erdaretarako literatur itzulpena: zeharkako eta zuzeneko itzulpenaren arteko
muga lausoa
ELIZABETE MANTEROLA AGIRREZABALAGA

- 405 Ahozko euskararen irakaskuntzarako irakasleen prestakuntza:
berrikuntza didaktikoa eta soziala?
IBON MANTEROLA
- 421 Enkarterriko PI-(h)aran/(h)uri motako euskal toponimoak
MIKEL MARTÍNEZ ARETA
- 437 Diachronical hypotheses accounting for synchronic variation:
the case of the Basque particle *ote*
SERGIO MONFORTE
- 453 Jardueraren azterketa irakasleak prestatzeko bide: debatearen
ikas-irakaskuntzaren adibidea
AROA MURCIANO EIZAGUIRRE, ARANTZA OZAETA ELORTZA
- 467 Hausnarketa zenbait euskal literatura-ikerketetz
MARI JOSE OLAZIREGI
- 485 Ahozko euskara *Kolegioko ikastresna* ikasmaterialean
ARGIA OLÇOMENDY
- 501 Euskararen postposizioak
JAVIER ORMAZABAL
- 517 Hitz-ordenaren eragina zenbait ezaugarri gramatikalen
erabilera-maiztasunean
LUIS PASTOR
- 533 Differential D-marking on proper names? A cross-linguistic study
IKER SALABERRI
- 547 Externalization and morphosyntactic parameters in Basque
HISAO TOKIZAKI
- 561 XIX. mendeko Debagoieneko testuez zenbait argitasun:
egiletasuna eta iturriak
OXEL URIBE-ETXEBARRIA
- 579 Euskarazko perpausik gabeko azpikonparazioak
LAURA VELA-PLO
- 595 Latinaren aurreko osagai indoeuroparra Euskal Herriko toponimian:
bukaeran -(iz)amo duten leku-izenak
LUIS MARI ZALDUA

Izenburua/Título:

Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari/Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca

© Argitaratzaileak/Editores:

Ekaitz Santazilia, Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga, Borja Ariztimuño

© Egileak/Autores:

Itziar Aduriz, Jose Mari Arriola, Luzia Alberro, K. Josu Bijuesca, Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega, Jone Goirigolzarri, Alexander Artzelus Muxika, Mikel Ayerbe Sudupe, Goio Bañales, Mikel Gorrotxategi, Iñigo Beitia, Garbiñe Bereziartua Etxeberria, Beñat Muguruza Aseginolaza, Lyle Richard Campbell, Bruno Camus Bergareche, Sara Gómez Seibane, Denis Creissels, Céline Mounole, Leire Diaz de Gereñu Lasaga, Itziar Idiazabal Gorrotxategi, Luis Mari Larringan Aranzabal, Amaia Elizalde Estenaga, Arantzazu Elordieta, Ainara Estarrona, Izaskun Etxeberria, Ricardo Etxepare, Manuel Padilla-Moyano, Ander Soraluze, Ainhoa Ezeiza, Javier Encina, Ines M. Garcia-Azkoaga, Olatz Bengoetxea, Josune Zabala, Roberto González de Viñaspre, Joaquín Gorrochategui, Miren Ibarluzea Santisteban, Iván Igartua, Paula Kasares, Beñat Lascano, Itziar Madina, Elizabete Manterola Agirrezabalaga, Ibon Manterola, Mikel Martínez Areta, Sergio Monforte, Aroa Murciano Eizaguirre, Arantza Ozaeta Elortza, Mari Jose Olaziregi, Argia Olçomendy, Javier Ormazabal, Luis Pastor, Iker Salaberri, Hisao Tokizaki, Oxel Uribe-Etxebarria, Laura Vela-Plo, Luis Mari Zaldua

© Argitaratzailea/Edita:

Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra

Kultura eta Kirol Departamentua/Departamento de Cultura y Deporte

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia/Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana

Lanak adituek berrikusi dituzte, itsu bikoitzeko sistemaren bidez/Los trabajos han sido revisados por pares doble ciego.

Diseinua eta maketazioa/Diseño y maquetación:

Kö estudio

Imprimaketa/Impresión:

Linegrafic

ISBN: 978-84-235-3561-3

LG/DL: NA 1438-2020

Sustapena eta banaketa/Promoción y distribución:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa/Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra

Navas de Tolosa, 21

31002 Iruña/Pamplona

Tel.: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

Fontes Linguae Vasconum 50 urte.

2019an 50 urte egin zituen Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundeak argitaratzen duen *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta* euskal hizkuntzalaritzako aldizkariak.

Horren gorazarre, liburu honek gaur egungo euskal hizkuntzalaritza- eta literatura-ikerketan zertan den erakutsi nahi du. Eskarmentu handiko ikertzaileek eta belaunaldi berriek bat egin dute argitalpen honetan, besteak beste, dialektologia, hizkuntzaren didaktika, filologia, gramatika teorikoa, hizkuntz tipologia, hizkuntzalaritza historikoa, itzulpengintza, literatura, onomastika eta soziolinguistika hizpide dituztela.

La revista de lingüística vasca *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta*, publicada por la Institución Príncipe de Viana del Gobierno de Navarra, cumplió 50 años en 2019.

En homenaje de la efemérides, este libro pretende dar cuenta del estado actual de la investigación en lingüística y literatura vascas. Investigadores de gran trayectoria y nuevas generaciones se reúnen en esta publicación para tratar, entre otros temas, sobre dialectología, didáctica de la lengua, filología, gramática teórica, tipología lingüística, lingüística histórica, traducción, literatura, onomástica y sociolingüística.

ISBN: 978-84-235-3561-3



9 788423 535613